

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Lostra Jauregi

*Diaspora,
Diaspora
(1951)*

Aurkibidea



Biografia



Francis Anton du bataio izena, baina Patxi bezala da ezagunagoa. Bost senidetan bigarrena, Elkon (Nevada) jaio zen, eta baita haren gurasoak ere, euskal jatorrikoak izan arren; aita mekanikoa zen. Aitaren aldeko aitona Luzaidekoa zen (Nafarroa, artzain joan zen Kaliforniara eta gero handik Nevadara) eta amona Arrietakoa (Bizkaia); ardi arrantxoa ipini zuten. Amaren aldetik, berriz, Muxikakoak ziren: aitonak Star Hotela ireki zuen Elkon (Nevada) eta amona Elkoko Old Corner Bar tabernako ugazaba izan zen. Patxiren etxean euskara zen nagusi baina, anai-arreben artean ingelesez egiten zutenez, euskaraz hitz egiteko erraztasuna galdu zuen. 1969an, Hight School ondoren, Boiseran (Idaho) joan zen kontabilitatea ikastera eta han euskal munduan murgildu zen: Oinkari dantza taldean, besteak beste. Euskara berreskuratzen joan zen pixkanaka. Elkora bueltatuta, Boisen jaioa den July Chacartegirekin ezkondu zen (euskal jatorrikoa hura ere, aita Lekeitiokoa baitzuen; ama greziarra, baina euskara ikasi zuena). 1978an Oñatira (Gipuzkoa) joan ziren biak, Boiseko Basque Studies Abroad programarekin, eta hiru urtez geratu ziren han bizitzen. Boiseran bueltatu ziren gero. Seme bat dute. Orain, erretiroa hartuta, beraien helburua Oñatin ahalik eta denbora gehien pasatzea da. Oñatin elkarrizketatu genuen Patxi.

Zintak

DIA-034

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2026-01-01
- **Iraupena:** 99 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com